



ikastolak



LIZARRA IKASTOLA
LIZARRA



LH 6. mailako ikasleak

LIZARRAKO IKASTOLAKO IKASLEAK

“Lizarrako Llanos parkearen babesaren denon ardura da”

Zuhaitzaren Astearekin bat eginez, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek txorietzako habiak eraiki eta zintzilikatu dituzte Lizarrako Llanos parkean.

📷 **Lizarra Ikastola**

LIZARRA – Azkeneko bi hilabeteak eman dituzte, plastika arloan, pazientzia handiz txorietzako habiak sortzen. Txapakumea, zerrak, lixa eta silikona erabiltuta makina bat habi sortu dituzte 48 ikasleren artean.

Udaberriak gure atera jo du dagoeneko, eta datozen hilabeteetan Llanos parkeko zuhaitzia edertasunez haziko da. Ugariak eta anitzak dira ikasleek sortutako habien bizilekuak izango dituzten zuhaitzak; pagoak,

Txapakumea, zerrak, lixa eta silikona erabiltuta makina bat habi sortu dituzte 48 ikasleren artean, parkeko zuhaitzetan ezaritzeko

zurzuriak, astigarrak, intxaurrenondoak, himalayako zedroak, ezkiak, makalak, zumarrak, indi gaztainondoak, haltzak, erramua, neguko astigarrak eta platanondoak, besteak beste.

Behin txorien txapakumezko etxeak prest zituztela, Lizarrako Udalaren baimena izan dute habiak ondo kokatu, eta zuhaitzen adarretatik zintzilikatzeko. Egiteko honetan Roberto Ayucar eta Alfonso Riverren laguntza baliatu dute Lizarra Ikastolako neska-mutilek.

Hurrengo egunetan ikusiko da inguruko txoriek; Martin arrantzaleek, txantxangorriek edota urretxoriek ikasle trebe hauen bizitza errazteko ekimena gogoz hartzen duten.

Eneko Etxarri, Ione Sanz de Acedo, Maite Gainza, Eneko Galarza, Araitx Errazkin eta Irene Aedo Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek euren esperientzia azaldu digute.

Nola eraiki dituzue habiak?

–Habiak txapakumea erabiltuta sortu ditugu. Lehendabizi, oinarriak kopiatu ditugu, ondoren, kontu handiz, zerrarekin pieza ezberdinak moztu; jarraian, zati ezberdinak leundu ditugu lixaren laguntzaz, eta azkenik, silikona erabiliz pieza guztiak itsatsi ditugu.

Txori guztiek erabili ahalko dituzten habiak dira?


–Tamainaren arabera ikusiko da zein txorik hartuko duen hauetako habiren bat bizileku. Gure inguruko txoriak aztertuta oso habi aproposak iruditzen zaizkigu urretxindor, martin arrantzale edota txantxangorrientzat. **Nola kokatu dituzue eraikitako habiak zuhaitzetan?**

–Helduen laguntza izan dugu horretarako. Lizarra Ikastola ondoan parke zabala dugu, zuhaitz asko dituen, eta bertako arboletan jartzea bururatu zitzaigun. Lizarrako Udalak ere, gure ekimenaren berri izaterakoan, laguntza eskaini zigun. Eskalera handia erabiliz zuhaitzetako adarretatik zintzilikatu zituzten 22 habiak.

Orain, zer gertatzea espero duzue?

–Dagoeneko ikusi ditugu hainbat txori guk utzitako habiak erabiltzen. Badakigu txori hauek haien kontura habiak egiteko gaitasuna dutela, baina primeran etorriko zaie guk utzitako “etxea”.

Zer ikasi duzue proiektu honekin?



Proiektuan parte hartu duten taldeetako bat. Argazkiak: Lizarra Ikastola



Lizarrako Udaleko langileek lagundu ziguten kabiak jartzen.

–Gehienok bikoteka lan egin dugu, eta ezinbestekoa ikusi dugu ondo antolatzea. Gainera, ohikoa ez den materiala eta tresnak erabiltzen ikasi dugu: zerra, silikona... **Zertarako uste duzue dela beha-**

rrezkoa horrelako ekintzak burutzeko?

–Interesgarria iruditzen zaigu gure ingurunea aztertu eta zaintzen ikastea. Zorionekoak gara Llanos bezalako parke handia horren gertu izaten,


eta honen babesaren denon ardura da. Aurtun Zuhaitzaren Astea baliatuz 22 habi zintzilikatu ditugu Llanosetako zuhaitzetan. Horrelako ekintzak eginez ondo pasatzeaz gain, ingurunea zaintzen ikasi dugu. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zenbat txori kabi jarri dituzte Lizarra Ikastolako haurrek?
 2. Nork lagundu die kabiak zintzilikatzen?
 3. Zer ikasi dute ikasleek proiektu honekin?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Naiara Rodriguez (Tantirumairu Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Maider Perez (Ibaialde Ikastola).
OSASUNA (6 sarrera): Baztan Ikastolako Nahia Garaikoetxea, Xuban Goñi eta Martin Organbide.



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua eraikundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.